ERRIOXAKO MAHASTIA

Tradizioz, mahasgintza jarduera nagusia izan da Arabako Errioxan. 1900. urteko filoxera epidemia handia baino lehen, Arabako Errioxako mahastiaren zabalera gaur egungoaren antzekoa zen; haren ondoren, mahastia nabarmen murriztu zen, eta bereziki zerealengatik ordezkatu zen. XX. mendearen erdialdean, zegoeneko, mahasti zaharraren %50 inguru berreskuratu zen. Azken horrek, gaur egun, XIX. mendean landatutako azalera gainditu du, horregatik, laborantza bakartzat jo daiteke. Ondorioz, zerealaren laborantza baztertutako guneetan bakarrik mantendu egin da.

Hogei urtetan bakarrik, mahastien zabalera 2.300 hektareetan zabaldu zen, 12,519 Ha-ra iritsiz, 2009. urteko laborantza-erroldaren arabera, alegia; Arabako landatutako lurren %74. Azalera horrek Errioxako jatorri deiturak barne hartutako mahastien azalerako %21 suposatzen du. Landatutako mahatsa gehiena beltza da, tempranillo barietatekoa.

Askotan, mahastia landatzen zen nekazariek beraiek (uzta-biltzaileak) hartzeko eta soberako mahatsa hazleei saltzeko. Ardoaren balio erantsiak gora egin zuen eta “Errioxa” jatorrizko deitura indartu egin zen (Arabak bertan hartzen du parte). Ondorioz, gero eta gehiago industrializatuta duden upeltegien kopurua bikoiztu egin da, euren artean lehiakortasun handia ezarriz.

Lehiakortasun hori upeltegien eraikuntzaren esparruan ere ikus dezakegu eta, askotan, eraikuntza lanak izen handiko arkitektoei enkargatu zaizkie. Esate baterako, Marqués del Riscal Upteltegiak, Eltziegonn, Frank Ghery-ren lana (2007) edo Ysios ardoen upeltegiak, Biasterin, Santiago Calatrava-ren lana (2001).

Gehiago jakiteko: La intensificación del cultivo de viñedo en la Rioja alavesa / Eugenio Ruiz Urrestarazu, Rosario Galdós Urrutia . - Lurralde N. 11, p. 303-313.



Ysios upeltegia, Biasteriko iparraldean, Santiago Calatrava-ren lana (2001).



Ortofoto 2015. Fuente: *Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi Coordenadas UTM 30N ETRS89 // X: 533571 m // Y: 4713000 m*

Marqués del Riscal upeltegia, Eltziegon, Franl Ghery-ren lana (2007).



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi UTM 30N ETRS89 // X: 531425 m // Y: 4706632 m koordenadak

Baigorri upeltegiak, Samaniegon, Iñaki Aspiazuren lana (2007). Bere estiloa, modernotasunaren barruan, neurritsuagoa eta anbiestalistagoa da, eraikinaren zati handia lurpean baitago, eta kristalezko kubo bat eta atzeko aldetik eskailera handi bat bakarrik azaleratzen baitira. UTM 30N ETRS89 // X: 525786 m // Y: 4712665 m.



Arabako Errioxako mahastia. Argazkia atera da hostoak kimatzen hasten diren unean.



Ortoargazkia 1968. Iturria: Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava, geoEuskadi. Arabako Foru Aldundia. Arabako Errioxako sektore bat 1968. urtean. Biasteriko udal mugarteko sektore bati dagokio. Mahastiari emandako azalera garrantzitsua da, baina ez da bakarra.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 531838 m // Y: 4712511 m Z: 563 m. Biasteriko Udal mugarteari dagokio. Bertako Páganos herria ortoargazkiaren eskuineko behe angeluan kokatuta dago. 1968ko ortoargazkiari dagokionez, ikus daiteke mahastiaren azalera handitu dela. Hura laborantza bakarrean eratzen da eta, zenbait kasutan, partzela ugari bakar batean murgiltzen ditu.